

PEDIATRIAKO LARRIALDIETAKO ARRETAKEO JARDUNBIDE KLINIKO EGOKIAREN ARAUAK OSPITALERATU AURREKO EREMUAN

1. Osasun-zentro guztietan egongo da pediatriako larrialdietan arreta emateko **medikazioa eta materiala**. Material hori **emergentzia-orga batean eta poltsa batean egongo da**, larrialdi batengatik zentrotik kanpo joan behar izanez gero ere.
2. **Larrialdietako materiala eta medikazioa berraztertzeko protokolo edo prozesu** bat egongo da, eta zentro bakoitzean horretaz arduratuko den pertsona zehaztu behar da.
3. **Larrialdietako medikazioa eta materiala adostuta eta bateratuta egongo da**, zerbitzuen antolamenduaren arabera eta aplikazio-eremua aintzat hartuta: Larrialdiak eta Osasun Garraioa, Lehen Mailako Arreta (LMA) eta Etengabeko Arreta Guneak (EAG).
4. Lehen mailako arretako zentroetan eta Etengabeko Arreta Guneetan, asistentzia urgentea edo berehalakoa eskatzen duten pazienteak **sailkatzeko sistema eraginkor** bat egongo da, arreta larritasunarekiko denbora proportzionalean emango dela bermatzeko eta **irisgarritasuna hobetzeko**.
5. **Komunikatzeko bide egokiak** egongo dira **asistentziaren maila guztien artean**, pazienteari arreta emateko, pazientea ambulanzian eramateko eta pazienteari harrera egiteko, betiere pazientea lehenengo asistentzia ematen den osasun-zentro edo tokitik xede-zentrorra eraman behar denean. Gainera, pazientea **ambulanzian eramateko baliabide motarik egokiena zein den erabakitze**ko tresna bat erabiltzea bultzatu behar da.
6. **Patologiaren araberako protokoloak** egongo dira, **adostutakoak, eguneratutakoak eta aldizka berraztertutakoak**, asistentzia estandarizatzeko asistentzia-maila guztien artean. Protokolo horiek **argiak eta zehatzak** izango dira, osasun-arloko profesionalarentzat baliagarri izan daitezen erabakiak hartu behar dituzten.
7. Larrialdia kudeatzeko behar izango den **dokumentazioa** (osasun-arretaren eskema protokolizatuak, ambulanzian eramateko eta osasun-baliabide motaren **scorea** egiteko dokumentuak, eta abar), **oso erraz hartzeko moduko tokian** egongo da: kopia bat **emergentzia-organ** eta sarbide informatiko bat **haur bakoitzaren historia klinikoan bertan**.
8. Inplikaturako langileek –osasun-arlokoek eta beste arloetakoek– **etengabeko prestakuntza** jasoko dute eskura dauden arreta-protokoloei buruz eta protokolo horien eguneratzei buruz, bai eta aplikatu beharreko teknikei buruz ere: Bihotz Biriketako Berpiztea –oinarrizkoa eta aurreratua–, desfibriladore erdiautomatikoa (DEEA), zain-bideak lortzea, hezur barneko bidea, eta abar.
9. **Medikazioa** larrialdi-egoeretan **erabiltzeko baldintzei buruzko dokumentazioa** egongo da, ahalik eta segurtasun handienarekin prestatzeko moduan, akatsak minimizatu eta **pazientearen segurtasuna** bermatzearren.
10. Larrialdiko arreta behar duten haur eta nerabeek senitarteko edo arduradun batekin **egoteko eskubidea dute arreta ematen zaien bitartean eta beharrezko prozedurak egiten zaizkien bitartean**; senitarteko edo arduradun horrek, gainera, ahalik eta anamnesi zehatzena lortzeko informazioa eman dezake.